

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure produktua dakizuen moduan da itsasoan zakarrontziak jartzea, itsasora botatzen diren hondakinak batzeko. Baina jende asko ez dakite honeri buruz, horregatik gure zakarrontziak arrakasta izateko eta jendea horri buruz jakiteko aplikazio guztietan kontu bat egingo dugu, kontu horietan egunero itsasoaren egoeraren argazkiak igoko ditugu zuek ikusteko gure produktua oso erabilgarria izan daitekela eta gure bizitza hobetuko dela. Astero erakutsiko dugu zelan doan eboluzionatzen itsasoaren egoera.

Beste parte batetik, "influencer"-ekin kontaktatuko dugu gure produktua patronizatzeko eta jendea laguntzeko gure helburua lortzen. Badakigulako haiei esker pertsona asko gure produktuari buruz jakingo dutela. Gainera, gure produktuaren sortzaile bat lehengusu bat dauka eta honek jarraitzaile asko ditu sare sozialetan, horri esker berari eskatuko diogu gure produktua patronizatzea.



Beste alde batetik udaletxeari ere eskatuko diogu laguntza, lehenengo eta behin gure herriko jendea konturatzeko helburu bat lortu nahi dogula eta haien laguntza behar dugula ere.

Esan dugun bezala, Zornotzakoak gara eta aurten SD Amorebieta herriko taldea bigarren mailara igon denez, haiekin harremanetan jarri gara gure marka babes dezaten. Horrela, arrakasta lortuko dugu eta jende gehiagok izena emango dute proiektu honetan, gure izaerak, eta batez ere, Euskal Herriko itsasoaren egoerak hobera egin dezaten.



Gainera, gure marka Athleticen jarraitzaile bat da, "Athletic zale" batzuk garela esaten den bezala, taldekide bati esker, Unai Simon-en jokalariaren lagun hobea, gizartea hobetzeko atera nahi dugun proiektua kontatzearekin hitz egin ahal izan du. Unairen laguntzari esker, proiektua kontatu diete Athletic-en lehendakariari eta Athletic-eko talde osoari, eta babesleak izatea erabaki dute.

Bestalde, jokalari guztiak ados jarri dira gure markari buruzko publizitate-bideo bat egiteko, eta Athletic-eko zaleak eta bideoa ikusten duten guztiak kausa honeta parte hartu dezaten, horrela elkarrekin etorkizuna hobetuko baitugu.

Bideo hau sare sozialetara igoko da, hala nola Instagram, Facebook, Twitter, TikTok... horrela, jende gehiagok ikusiko dute.



FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Bestalde, lankide bat Iñigo Urkullu, Euskal Herriko presidentea ezagutzen duen lagun batekin harremanetan jarri da . Iñigoren laguntzari esker, bilera bat izan genuen, non gure proiektua onartu eta kausaren alde egiteko. Gainera, gure proiektua izendatu zuen bere meeting batean, gure proiektuan jendearen parte hartze asko jaso du laguntzari esker. Gure lehendakariak gauza on bat egin duenez, proiektua estreinatzeko ohorea eman nahi diogu, eta, beraz, zaborrak itsasoan jartzearen arduraduna bera izango da.

